

# DINYCON SISTEMAS S.L.:

## HONDARTZA SEGURUAK: covid-19aren aurrean edukiera eta segurtasuna kontrolatzeko gizarte-proiektua



Roberto García Lafuente  
robertogl@dinycon.com  
656 713 107

<https://www.dinycon.com/es/soluciones/conteo-de-personas>



**Jarduera:** Sistemen, kontrolaren eta automatizazioaren ingeniari-tza integratzailea. Leku publikoetako eta aparkalekuetako kudeaketa optimizatzeko konponbide berritzaileak garatzen dituzte, eta, horretarako, urrutiko kontrola eta zaintza, web bidezko sarbidea eta gailu mugikor-  
rak sartzen dituzte.



**Sektorea:** Ingeniaritzako zerbitzu teknikoak eta aholkularitza teknikoarekin lotutako beste jarduerak.



**Enplegatutako pertsonen kopurua:** 12



**Lokalizazioa:** Portuetxe Kalea, 23b, 20018 , Donostia - San Sebastián, Gipuzkoa

## EUSKADI mailako berrikuntza INKREMENTALA

### Zergaitik izango litzateke berrikuntza kasu praktiko bat?

Pertsonen mugikortasunarekin eta kokapenarekin lotutako enpresa berritzaile eta originalizat hartzen delako. COVID-19aren birusaren hedapena dela eta, espazio publikoen edukiera zorrozki kontrolatu behar da eta pertsonen arteko distantzia automatikoki eta modu anonimoan zaindu. Ekimen honetan, hondartzen kasu zehatzari begira, erabiltzaileek hondartzen okupazioa egiaztatu ahal dute sarbideetako informazio-pantaila baten bidez, eta, gainera, informazio prediktiboa jaso dezakete telefono mugikorrean. Hala, egoera murriztu eta kontrolatzea lortu da soluzio berriari esker.

### KASU PRAKTIKOARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA

DINYCON SISTEMAS 2001ean sortutako enpresa txiki bat da (10-12 langile). Ingeniaritza aitzindaria da Espainian eta Europan pertsonak eta ibilgailuak zenbatzen, eta teknologia jabeduna garatzen du, arreta Smart Cityn jarrita, pertsonen eta ibilgailuen mugikortasunaren kudeaketa optimizatzeko. Hori guztia eraikinei aplikatutako informazio-teknologiengan oinarrituta dago, eta Smart City kontzeptuarekin lotuta.

Ibilbide luzea eta sistemen integrazioaren arloan esperientzia handia du DINYCON SISTEMAS enpresak eta etengabe berritzen ari da kontaketa-soluzioen instalazioan, eta hasieratik bere filosofiaren oinarri diren lanaren sormena, berrikuntza eta kalitatea ditu ardatz nagusi.

Beraz, egiten dituen jardueren barruan (pertsonak zenbatzea, edukieren kontrola, aparkalekuen okupazioaren kontrola, plaza libreei buruzko informazioa, etab.), eta pandemiaren ondorioz, ikusi zen esparru publiko batzuk arrisku-espaziotzat jotzen zirela testuinguru horretan, eta, beraz, edukieraren kontrola garrantzitsua izango zela segurtasuna bermatu ahal izateko.

Egoera horretan eta uda bertan izanik, ikusi zen hondartzak izango zirela jendearen pilaketak gerta zitezkeen eremuetako bat. Hortaz, baieztapen horren inguruan, ideia bat garatzen hasi ziren DINYCONek eskaintzen dituen konponbideen artean, baina, oraino, espazio jakin bat begira: hondartzak.

Idea eta soluzioa zuzenean DINYCON SISTEMAS enpresak garatu ditu. Hala ere, azpimarratu behar da kanpoko teknologia-zentro batzuek ekarpenak egin dituztela (Tecnalia, Tekniker, etab.). Zentro horiek balio proposamena osatzen duen know howa eskaintzen dute (software plataforman integratua). Zati hori software-plataformarekin integratu da. Era berean, ekimena Santanderreko Udalarekin eta Telefonicarekin elkarlanean egin da, kostaldeko hiri horretako zortzi hondartza garrantzitsuenetan edukiera kontrolatzeko.

Ekimen hori hondartza seguruaren kanpainaren oinarri izan zen Santanderren, eta teknologiarekin COVID 19aren kutsatzeen kopurua arintzea lortu zuen, baita hondartzetako erabiltzaileen arteko segurtasun distantzia bermatu eta erabiltzaileei udaz gozatzeko aukera ematea ere.

### Aurrekariak

DINYCON SISTEMAS enpresaren jardura mugikortasunerako konponbideen garapenean oinarritzen da, hau da, pertsonak eta ibilgailuak nola mugitzen diren ezagutzea, mugimendu horiek detektatzen dituen sensorika bat hedatuta. COVID-19aren pandemiaren ondorioz, espazio publikoetako edukiera kontrolatzea da birusa ez hedatzeko kontrol-neurri nagusietako bat. Zehazki, udan hondartzak dira jende gehien biltzen duten espazioetako bat, eta, horregatik, oso garrantzitsua da kasu horretarako konponbideak ematea.

### Erronka

Erronka da ingurune irekietan zenbaketa-sistema zehatz bat eta aurreikuspen-eredu bat hedatzea, espazioaren kudeaketaren arduradunek arrisku-egoerei aurrea hartzeko aukera izan dezaten eta erabiltzaileek ere espazio batera joan edo ez erabakitzeko aukera izan dezaten, denbora errealean duten okupazioaren arabera.

### Ekintzak

1. Barne-bileretan, ingurunearen egoera eta negozio-aukerak aztertzen dituzte. Kasu honetan, pandemiak eragindako egoera aztertu zen.
2. Arazoa identifikatzea. Pandemiaren testuinguruan, arreta udan hondartzetan gertatzen den kalteberatasun-egoeran jartzen da.
3. Ideia garatzea, edukiera kontrolatzeko konponbide aurreratua lortzeko. Plangintza bat zehazten du, atazak, baliabideak eta exekuzio-epaiek zehaztuta, lehendik dagoen plataformatik abiatuta.
4. Konponbidea hondartzaren ingurunera eramatea. Aplikazioa hedatzen hasi aurretik, espazioa, ezaugarriak eta berezitasunak aztertu ziren.
5. Hainbat inguruetan aplika daitezkeen konponbidea eta oinezkoen mugikortasuna aurreikusteko konponbidea lortzea. Konponbidea iraunkorra da eta ase egiten ditu pandemiak eragindako egungo beharrak.

### Lortutako emaitzak

- Santanderreko 8 hondartzatan aurreikuspen-eredu bat integratu da, baliabideak optimizatzeko eta mota guztietako arrisku-egoerei

aurea hartzeko.

- Konponbide hori espazio itxi edo zehatzetan jarduerak garatzen dituzten edozein sektore eta jardueratan aplika daiteke.
- Enpresaren produktu-katalogoa hobetu da eta gainerako konponbideei balio erantsia eman zaie.
- Santanderreko Udalak emandako aintzatespenak, hondartzetako edukieraren kontrola ondo kudeatu izanagatik.

---

## KASUAREN KATEGORIZAZIOA

---

### Berrikuntza-eremuak:

- Produktua: Ondasun fisikoak.

### Aukera arloak:

- 1 - Eraldaketa teknologikoa/digitala

**Roberto García Lafuente (bazkide fundatzailea)**

“Berrikuntza horren emaitza nagusia izan da webgunearen bidez eta hainbat kanpainaren bidez egin dugun komunikazioan izan duen eragin mediatiko instituzionala”.

**Roberto García Lafuente (bazkide fundatzailea)**

“Oso denbora-tarte motzean hainbat kontu konpondu behar izan ditugu, baina konponbide heldua da, eta denboraldi honetan beste leku batzuetan aplikatu eta hedatu ahalko dugulakoan gaude”.

### Innovation Index Score: ★★☆☆★

Lerrotatze estrategikoa: ★★★★★

Kreatibitatea: ★★☆☆★

Kolaborazioa eta hibridazioa: ★★☆☆★

Sistematizazioa: ★★☆☆★

Eraginkortasuna emaitzetan: ★★★★★

Efizientzia emaitzetan: ★★☆☆★

Erreplikagarritasuna eta transferigarritasuna: ★★★★★

★

Eragina: ★★☆☆★

Aintzatespena: ★★☆☆★